

Noaia!!!

www.noaia.com



Maridomingi eta Olentzero iritsi dira gure artera



Usurbilgo kirolariak

Kirolhaerria ekimenarekin bat

Otar-Goxo
E l i k a g a i a k

Zorionak! Usurbildar guztiei



Harategiko berezitasunak

Txahal azpizuna
Behi azpizuna
Esneko arkumea
Txerrikumea
Antxumea
Kapoia
Pularda, ehiza,
rosbeef, entrekota (1kg)...

Urdaitegiko berezitasunak

Foie frexkoa
Te eta Jengibre din foie
Ahate konfita,
Mikuit
Txatka naturala
izozkina
Bieira betea
Budinak...

Fruta denda berezitasunak

Ananak
Gaztainak
Mahatsa
Orejoiak
Kiwiak
Bertako barazkiak
Fruten selekzio paregabea



Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

 pikabea

Aseguru Artekaritza

Eskatu aurrekontua

- autoak
- etxeak
- bizi-aseguruak
- komunitateak
- merkataritza-dendak
- enpresak
- pentsio planak

Albisteak iruditan !!

Bigarrenenez, ongi etorri

Santo Tomas azoka amaitu eta segituan, Joxe Domingo Aizpurua "Pana" preso oihari bigarren ongi etorria egin zitzaion. Honakoan, Sutegin. Abenduaren 11n, aske utzi zutenean, herrira iritsi eta gorabehera handiak izan ziren Ertzaintzarekin.

Usurbilgo Ezker Abertzaleak bigarren ongi etorri bat prestatu zion. Ekitaldi hunkigarria izan zen. Bideo proiektzio bidez bere ibilbidearen berri eman zen. Dantzariak agurra egin zioten eta gero hitza hartu zuen Joxe Domingo Aizpurua.

Abenduaren 31n, presoan aldeko brindisa antolatu dute.



TXIKI GERATU ZEN SUTEGIKO AUDITORIDA, "PANAREN" ONGI ETORRIAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordintzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

SANTO TOMAS AZOKAK EMAN ZUENA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

OLENTZERO ETA BERE LAGUNAK **9. OR.**

ZUMARTE MUSIKA ESKOLAK 25 URTE **10. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAN

Arlatitxo 8, balas - 943 363 348 - 609 888 021

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



UGAITZ AGIRRE

Intsumiso inkonformista baten ibilerak: Kultura zentsuratuak

Gaurkoan nire txanda. Eta gainera lehena. Kaixo Girakurle, urte askotarako. Erreleboa ematea tokatzen zait oraingoan; auskalo zenbat luzatuko den errelebo hau, zenbat hitz idazteko, zenbat ideia azaltzeko, zenbat gai jorratzeko eta zenbat buruhauste zein gai idatzi ez dakidanean ideiak azaltzeko hitzak aukeratzean. Eta lehenengo buruhaustea lehen egunean.

Hau panorama. Ederki hasten gara. Gainera gaurkotasuna eduki beharko du, hori ikasi dugu iritzi artikuluen inguruan bederen eskolan. Eguraldiari buruz hitz egin genezake... Ez, ez. Nahikoa badugu gai horren inguruan geografiako klaseetan. Eta gabonen etorrera aipatuko banu? Zertarako? Nahiko publizitate bada munduko txoko guztietan afaritako turroia dela batetik eta hurrentzako jostailuak bestetik. Nazkatu arte daude hemen turroiak eta jostailuak.

Ea ba... zeri buruz gaurkoan... Beno, atzo gauean telebistaren aurrean negoziela Martxelo Otamendi elkarrizketatzen zebilen Xabier Euzkitze. Eta ez da gai txarra jendearen aurrean azaltzeko: Egunkaria Auzia. Laster zazpi urte itxi zutela euskaldunen artean banatzen zen euskara hutsezko egunkari bakarra. Ondoren atxilotetak, negarrak, manifestazioak, protestak, Audientzia Nazionala... Eta gainera oraindik gehiago, zegoen suteari erregai gehiago botatzen.

Pentsatzen jarri eta ondorioztatzen dut Egunkariaren itxiera ez dela izan prentsa erakunde baten aurkako eraso, baizik euskal kultura osoari eginiko atentatu bat. Orduan euskal kultura delitu bat dela ondorioztatzea logikoa litzateke. Euskaldun sentitzea delitua da, krimen

bat, egungo gizakiarentzat gaitz txar bat. Orain ulertzen dut zergatik espainiar edo frantses garelako dioten goikoek, gaitz krudel eta gordin horretatik salbatu nahi gaituzte, noski, gure salbatzaile izan nahi dute. Eskerrik asko!

Beno, utz ditzadan ironiak algaratik gutxi baitu herri honi egin dioten atentatu honek. Baina bestalde badu irri eginarazten didan ñabardura bat kontu honek. Aditua dut epaiketa aurrera eramanez nahi dutenak "Terrorismoaren Biktimak" delakoko kideak direla eta irudiei puntu askotatik begiratzea gustuko dudanez, estatu nagusiek harririk atera duten eskultura honi hainbat ikuspuntu aurkitu dizkiot. Ea, mundu demokratiko honetan terroristak demokrazia praktikatzeko ez dutenak dira, baina demokrazia praktikatu ez dakit norbaitek egiten duen. Orduan hemen ez da demokraziaren alde egiten, soilik Estatuaren alde eta Estatuak estatu demokratikoaren maskara jartzen duenez Estatuak burututako ekintzak demokratikoak dira. Ondorioz Estatuak ez ditu onartzen bere ekintzetatik eratu diren biktimak, beren ustez demokraziaren izenean egin baitute egin dutena, nahiz eta min asko egin etxe askotan. Azken finean hau da bizi garen mundua, hau da bizi garen herria. Kultura politika bihurtzen dute herriaren bihotzean samina sorrarazteko horrela pentsatuz kultura erasotuz gero herria bera suntsituko dutela bere sustraieetatik. Baina ez dute horrelakorik lortuko.

Badakizue zuekin gaudela Egunkariaren alde eta animo eta babes guztiak doakizkizuela Euskal Herriko txoko guztietatik denok baikaude zaku berean.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Ugaitz Agirre - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: urtarrilak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 11.

Papera jartzea eta
Pinturak orokorrean

**FERNANDO
PINTORAK**

943 366 019
943 363 460

Kale Nagusia 1 - USURBIL



ARRAINDEGIA
PELLO

 Puntapax Kalea,7 
Tlf 36 21 64
USURBIL

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin

Xukin
igeitseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Babarrun zukuak berotu zituen Santo Tomas azokara hurbildu zirenen eztarriak

Eguzkiak bazterrak goxatu zituen eta, horri esker, giro ederrean joan zen aurreko igandeko Santo Tomas azoka. Berritasun moduan, aurren, babarrun zuku bere odolki eta tipula tenpuraz banatu zen bisitarien artean. Atxega jauregikoek egindako gozagarri honek arrakasta handia izan zuen. Taloa, txistorra eta sagardoa dastatzeko postuak ere izan ziren.

Babarrun lehiaketan, Juan Karlos Balerdi izan zen irabazlea. Bigarren, Olarriko Jose Kruz Matxain eta, hirugarren, Aldapa baserriko Antonio Izagirre ekoizlea.

Sagardoan, aldiz, Izeta anaiak izan dira hirugarren aurren, Aitor Alkorta bigarren eta garaile Kontxi Urdanpilleta Etxeberri baserrikoa.



46 IZAN ZIREN BABARRUN LEHIAKETAN AURKEZTU ZIRENAK ETA 19 SAGARDO LEHIAKETAN PARTEHARTU ZUTEN SAGARDOGILEAK.



ETXEBERRI BASERRIKOEK IRABAZI ZUTEN SAGARDO LEHIAKETAKO LEHEN SARIA.



EPAIMAHAIKO KIDEENTZAT, BABARRUN ONENA JUAN KARLOS BALERDI AURKEZTUTAKO IZAN ZEN.



SANTUENEA

PAKO AGUDO

Eskubaloizelaia



Ez da denbora asko pasa eskubaloizelaiaren berrikuntzak egiteko proposamenak aurkeztu zizkigutela eta hilaren 23an beste bilera bat antolatuta dago arratsaldeko 18:30ean proiektu berria ezagutarazteko. Auzokideei beraien iritzia galdetu ondoren, haien proposamena entzuteko parada izango dugu. Honela eskubaloizelaiaren itxura berria ezagutzeko aukera izango dugu planoetan behintzat.

Zaila izango da denon beharrak edo nahiak betetzea baina, eskertzekoa da ere auzoan horrelako proiektua aurrera eramatea aspalditik berrikuntza hau behar zelako. Askok pena ere sentituko dugu eskubaloizelaiaren desagertzea ikusten dugunean. Oroitzapen asko burura etortzen direnak eta bertan gordeko ditugunak bizitzako momentu haiek ez ahazteko.

Eskubaloiak Santuenekoei eman eta kendu ziguna eta diguna gogorazten digu, auzoan zelaia ikusten dugun bakoitzean. Zer esan bertan ikusitako kontzertu haietaz? Urte askotan ospatu genituen bertan festak. Etsaiak, Urtz, A.D.N, Ehun Kilo, Baldin Bada... Azkeneko hauekin



denok dakigu zer gertatu zen ezta? Pena bada ere bizitza aurrera doa eta eskubaloia herrian finkatuta dago eta festak primerakoak izaten dira Ibai Ondo elkartearen aurrean beraz, eskerronez hartuko dugu gure eskubaloizelaiaren bizitza berria.

Besterik gabe, Olentzerorekin asko abestu, urte berri on eta ondo izan.

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Babesa



Joan den astean Gipuzkoako Foru Aldundiak omenaldi bat egin zien 60.hamarkadako andereñoiei, urrezko domina bat emanez. Nik ere, Arantxa Mendizabal andereñoa, Lasarte eta Usurbilgo ikasleekin aritutakoa gogoratu nahi nuke. Egunkarietako argazkietan azaltzen ez bada ere, bihotzean daramagulako. Merezitako omenaldia, izan ere oztopo ugari gainditu behar izan zuten ikastolen eta euskararen proiektuarekin aurrera egiteko. Egia da ere babesa handia jaso zutela hainbat jende eta elkarten aldetik.

Bestalde berrogeita hamar urte geroago Egunkariko auzituek zalantzan dute etorkizuna. Lehen andereñoek bezala, orain beraiek eta bere senitartekoak dira behar dutena gure babesa, bakoitzak bere ekarpena eginez.

Beti behar izan du euskarak eta bere inguruan jarduten duenak babes berezi bat, indar bat. Izan ere hain ahula da euskara, haur txiki bat bezain ahula.

Bukatzeko eta jai giroan gaudenez, ondo pasa eta urte berri on denei.

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Iritsi da urte bukaera

Gabonak gainean ditugula eta aitzakia honekin nahikoa janari eta edari izango dugu gure etxeetako mahaietan. Santo Tomaseta hasi ginen, txistorra eta sagardoa nonahi jan eta edaten, Udarregi ikastolako txikienek ere ederki pasa zuten egun batzuk lehentxeago.

Gabon gaua berezia askorentzat, urtezahar gauarekin lehian dabil azken urteotan, izan ere lehen familiarekin afaldu eta denok batera igarotzen ziren ordu txikiak arte. Orain aldiz, festarako egun bat gehiago balitz bezala juerga ederra botatzeko gau paregabean bihurtu da.

Hala ere Eguberri eguna Olentzeroren bisita jaso dutez gure egun ahaztezina izan ohi da, barre algaraka hara! Zer oparitu didan amak eta izebarena aldiz ez zait hain gustukoa... Moduko esaldiak botaz. Urtezaharra da aldiz berezietan bereziena, berarekin dakarren guztiarengatik, atzean utzitakoak eta aurretik bizitzeko dugun guztia erdibideko puntua delarik. Ea ba, ondo pasa egun hauek eta asko jan eta gehiago edan!



KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Santo Tomas



Gabonak gainean ditugu eta urteroko moduan gabonak baino lehen Santo Tomas eguna ospatzen dugu Donostian. Aurtengoan ere konturatzerako iritsi zaigu eta gutariko asko hurbildu gara Donostiara taloa eta txistorra jatera.

Baina nondik dator jai hau? Ba nik ez nekien, baina erantzun baten bila ibili ostean zerbait bilatu dut. XIX.mendearen erdialdera Gipuzkoako baserriak jabeek alokatu egiten zituzten eta Santo Tomas eguna zen hain zuzen ere errentariak maizterrari ordaintzen zion eguna. Baserrian bizi ziren guztiak egun honetan Donostiara jaisten ziren Donostian bizi ohi ziren baserriaren jabeek errenta ordaintzera. Eguna aprobetxatuz bazkari bat egiten zen eta baserriarrek herrietan aurkitzen ez zituzten barazki eta artisautzako produktuak erosteko ere aprobetxatzen zuten egun hau. Beraz, feria honi izen bat jarri behar izan ziotenez Santo Tomas izena jarri zioten, baina ikus dezakezuen ez du inongo zerikusirik erlijioarekin.

Azkenean ohitura hau tradizio bihurtzen hasi zen eta gaur egun landa inguruko produktuen salmenta egiteko aprobetxatzen den jai da. Festa honetako txerriaren ohi-



tura ere aipagarria da, egun guztian jendeak ikus dezan erakusten dute eta egunaren bukaeran zozketatu egiten baita.

AGINAGA

M^ANGELES ARRUTI

Urteari agurra



Urteari bukaera ematea tokatzen zaigu egun hauetan eta bukaera ematea tokatzen zaigunez, bizi garena esan nahi du. Askok ez dute hori esateko aukerarik izan. Denetarik izan dugu aurtengoan ere, egun triste eta beltz asko baina, geroago alaitasun eta poztekoak ere bai.

Datorren urteari eska diezaiogun osasuna, batez ere bes-teari laguntzeko gai izan gaitezen.

Bestalde, aginatar guztiei egin nahi dizuet dei berezia, ostegunean badakizue nola irtengo garen katekesian ibiltzen diren gazteekin eta gurekin etorri nahi duten guztiekin "Gabon eskan".

Aurtengoan ere artzain berria dugu, Ibon Alberdi gure apaiza. Berarekin ibiliko gara auzoz auzo eta auzotarrak ezagutzen.

Egun berezi hauetan ez nituzke aipatu gabe utzi nahi, etxetik urrun, gaixo edota erietxeetan dauden guztiak. Denak ere gogoan ditugu eta animorik handienak bidaltzen dizkiet.

Beraz lerro hauetatik denoi opa dizkizuet gabon festa zorionsuak eta ondo buka urtea eta hobeto hasi berria.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Protesta eta biziraun

Urtero bezala Gabonak ospatzeko zereginetan beharko genuke; nire kasuan Gabonetako kantuen saioetako paperak prestatzen. Baina ez dugu burua horretan. Prestakuntza saio bakarra eta nik kale. Hala ere, Gabon egunean arratsaldez ibiliko gara kantuan Zubietako Ameritik plazaraino, gustua baduzue.

Kontua da, batetik, orain dela gutxi jakin dugula Eskola txikiaren egoera aldatuko dela eta bakarrik haur eskola izango dela. Ikasle zaharrenak kanpora bidaliko dituzte. Azken batean eskola bere txikian gorde nahi dute, hazteko eta arnasa hartzeko ere airea kendu. Horren aurka azaldu da guraso jendea. Eta han eta hemen protestan ari dira. Autoa hartuta batera eta bestera.

Bestetik, errauskailuaren aurkako protestan jarraitzen dugu. Donostian izan ginen orain dela gutxi autobus bete jende, trak-torea eta zaldia!

Eta azkenik -baina ez horregatik gairik txikiena-, Egunkaria auziarena iritsi zaigu. Bilbon ibili gara, beste askorekin batera, Zubietako askotako jendea, elemenia. Kontu hau ez da gurea bakarrik, baina gurea ere bada.

Protesta eta biziraun. Hori zen orain dela 30 urteko liburu baten izenburua. Ez dizuet kontatuko. Baina egokia iruditu zait azaltzeko Zubietaren egoera egunotan.



Eskura ezazu produktu ekologikoen otarra

Bertako produktu ekologikoak bultzatzeko herrian sortu den taldeak ekimen berria abiatuko du urte hasieran. Urtarrilaren 11tik aurrera, garaiko barazki ekologikoz betetako otarra eskuratu ahal izango dituzte ekimenean izena eman dutenek. Egun berean bilduko dira, 18:00etan Alkartasuna Kooperatiban. Herritarrei, taldera gerturatzeko gonbita luzatzen zaie.

NOAUA! Zergatik erabaki zenuten taldean parte hartzea?

Aitziber Urruzola. Arrazoi gehiegi daudela uste dut. Batetik norbere osasunagatik, hobeto jan eta sentitzeko. Bestalde, horrek duen eraginagatik gizartearen eta baserriaren.

Andoni Castro. Inguruko baserriaren eta kontsumitzaileen artean zuzeneko harremana izatea lortu nahi da.

Ana Urdangarin. Kontzientzia zabalatzeko, jaten duguna gara.

N. Nekazaritza ekologikoaz, zer da bileratan adierazi dena?

Aitziber. Jendearen lehenengoetako kezka izan zen. Ekologikoa, produktu kimikorik gabeko barazkiak dira. Beste gai bat ere jorratu zen; zigilu ekologikoarena. Gertutasuna bilatzen dugunez, zigiluaren bila ez gara joango. Lurra era normalean lantzen duten baserriarrek, taldean parte har dezakete. Baldintza bakarra, aurrerantzean, produktu kimikorik ez erabiltzea da.

N. Kontsumo kooperatibak, zer onura ekar ditzake?

Aitziber. Nagusia, Usurbilgo baserriarrei aukera, bizitza ematea. Gaur egungo egoeran, zailtasun asko dituzte aurrera jarraitzeko eta baserri asko huse-



HERRIAN SORTU DEN TALDEKO KIDEETAKO BATZUEKIN ARITU GARA SOLASEAN.

ten ari dira. Kooperatiban salduta badakizu zenbat salduko duzun hilero. Lasai ekoinzten duzu.

N. Otarren sistema martxan jartzea erabaki duzue. Zer aldaketa ekarriko du?

Ana. Teknikariak sistema desberdinak ekarri zituen. Otarraren izan zen, lehen unetik denon adostasuna izan zuena. Astearen behin otarra jasoko da. Erosketa egiteko modua aldatuko da. Astelehenean otarra badator, aste osoko garaiko jakiak izango dituzula suposatzen da.

Aitziber. Alkartasunan jasoko da otarra. Gainera ikasiko dugu, garaiko barazkiak zeintzuk diren, batzuk ez dira ezagutzen eta.

N. Otarra jasotzeko zer egin behar da?

Ana. Kontsumoa oraindik mugatua da. Hemendik aurrera eskaera egingo luketenak, itxarote zerrendan geratuko lirake. Probatzen hasteko gogoz gaude.

Aitziber. Jendea animatu bileretara

etortzea, oso garrantzitsua baita ekarpenak egiteko. Antolamendu guztia gu erabakitzen ari gara.

N. Otarrak nolakoak dira?

Aitziber. Otar itxia da, kopuru zehatz batekin betetzen du ekoizleak. Asko kostatzen zaigu, betiko lau gauzetatik ateratzea. Otar itxiak jaten irakatsiko digu.

Ana. Hiru tamainatako otarrak dira: txikia 8 eurokoa, ertaina 15 eurokoa eta handia, 23 eurokoa.

N. Hurrengo bilera noiz?

Ana. Urtarrilaren 11n, Alkartasunan 18:00etan. Otarraren bila joango gara eta bilerak bertan egingo ditugu. Astelehenean banatuko da otarra, Alkartasunan.

Aitziber. Oraingoan, hilabeteko lehen astelehenean bilduko gara.

N. Taldeari izena jartzeko lanetan zabilzate.

Ana. Herriko talde bat izanda, izena aukeratzeko orriak taberna eta saltokietan jartzea bururatu zaigu.

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Olentzero eta bere lagunak, eguberriak iragartzen hasi dira auzoz auzo

Kaixo! Abenduaren 18an, Santo Tomas eguna ospatu genuen. Txistor goxogoxoa jan eta Olentzero bizkar gainean hartuta herriko frontoira abiatu ginen. Ez zegoen oso eguraldi ona baina pixka bat busti arren, gustura ibili ginen. Gainera bidean Olentzero, Mari Domingi, Lore eta Ikatz azaldu zitzaizkigun eta Olentzerori eman genizkion idatzitako gutunak. Orain oportetan gaude eta ilusio handia dugu laster Olentzero etorriko zaigulako opariak ekartzera. Guztion partez urte berri on denoi!

Haur Hezkuntzako ikasleak



OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI BISITA EGIN ZIETEN UDARREGIKO IKASLEEK.

OLARRONDOko GAUAK GABONETAN:

Abenduak 24: 01:00etatik aurrera

Abenduak 26, LARUNBATA: 23:30etik aurrera

URTEZAHARREAN: 01:00etatik aurrera

URTARRILAK 2, LARUNBATA: 23:30etik aurrera

Zorionak eta
urte berri on!



Olarrondo Jatetxea
5 zenbakia, USURBIL
erreserbak: ☎ 943 360 376
www.olarrondo.com

25 urte eta aurrera begira

Jakingo duzue. Aipatu izan dugulako orriotan. 25 urte bete ditu Zumarte Musika Eskolak. Horietako 22 eman ditu eskolan Idoia Arruabarrenak. Egun, bertako arduraduna da. Berak esanda, “ikasle izandakoen seme-alabak ditugu orain”. Pentsa. Gogotsu ekin diote urteurrenari. Sasoi betean. Baina eraikina ez dago bere onenean. Urteurrenaren poztasuna ez da bete-betea. Batez ere, ikasleen segurtasuna delako jokoan dagoena...

NOAUA! Nolakoak izan ziren Musika Eskolaren hastapenak.

Idoia Arruabarrena. Lehen, Donostiako Kontserbatorioaren menpe zeuden gure moduko eskolak. Azterketak Kontserbatorioan egin behar ziren.

Usurbilen, txistulari taldearen ekimeenez osatu zen Zumarte Musika Eskola. Musikaren munduan sartuta zeuden eta eskola sortzeko beharra ikusi zuten. Hasiera batean, beraz, Donostiako Kontserbatorioaren menpe. Baina ondoren, instituzioetatik –Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailetik, besteak beste–, bereizketa bat egin zen. Musika eskolak eta goi mailako hezkuntza eskolak bereiztuz.

Gaur egun, musika irakasteko, lantzeko eta gozatzeko guneak dira musika eskolak. Baina ikasle batek sakondu nahi badu edo guk ikusten badugu kristoren sena duela, beti dago aukera ikasle hori prestatu eta Kontserbatoriora edo Musikenera bideratzeko. Baditugu horretarako bitartekoak. Baina gutxik egiten dute hori, ze goi mailako musika ikasketa horiek ere karrera modukoak dira.

N. Musika Eskolak ere elkartuta zaudete orain. Santa Zeziliaren bueltan, ekitaldi bateratu bat egin ohi da.

I. A. Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartean Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko musika eskolen %95a sartuta gaude. Elkarrekin, esate baterako, Eusko Jaurlaritza eta musika eskolen arteko dirulaguntzak kudeatzen ditu. Duela



IDOIA ARRUABARRENA ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO ARDURADUNAK AZALDU DIGU MUSIKA ESKOLAK URTE HAUETAN IZAN DUEN BILAKAERA.

hiru urte, musika eskolei bultzada emateko asmoz, ekitaldi bateratu bat egitea pentsatu zen. Santa Zeziliaren bueltan, musika eskola guztiak egun berean kalera ateratzea erabaki genuen. Musikalean deitu zitzaion ekimen horri.

IDOIA ARRUABARRENA

“100 ikaslerekin hasi zen Musika Eskola baina 233 ikasle ditugu orain”

N. Barrura begira, ze bilakaera izan du Zumarte Musika Eskolak?

I. A. 84-85ekoa Zumarte Musika Eskolaren lehen ikasturtea izan zen. Aurretik, Udarregi zaharrean edota Potxoenean eman ziren musika klaseak. Baina 1984an hona etorri ginen (Villa Pilar etxera). Hasiera batean, euskaltegia eta buztin eskola ere hemen zeuden. Pixkanaka, hazten joan zen gure beharra eta orain gu bakarrik gaude hemen. 100 ikaslerekin hasi zen Musika Eskola baina 233 ikasle ditugu orain.

Eta garai hartan, txistua, pianoa, akordeoia... Instrumentu jakin batzuk

eskaintzen ziren. Gero etorri ziren gaitzako instrumentuak ikasteko aukera. Horrek, noski, espazioa handiagotzea eskatzen du.

Gaur egun, Zubietako Herri Batzarreko Bilguneko lokalean ere bagaude. Gela bat dugu han. Musika Hezkuntza ematen hasi ginen 4-7 urteko ikasleei. Zubietatik hona ekarri baino, errazagoa zen gu hara gerturatzeta. Hasiera batean, ikasle gutxi batzuk animatu ziren baina aurretik 23 ikasle ditugu Zubietan. Instrumentua ikasten hasten direnean, ordea, hona etorri beharko dute. Ikastolan ere, eguerditan beste gela bat erabiltzen dugu abesbatza emateko.

N. Bestela ere, eskolak emateaz aparte, ekitaldi asko egiten dituzue urtean zehar.

I. A. Badaude Musika Eskola batzuk, klaseetatik kanpo, urtean bi ekitaldi edo antolatzen dituzte eta kito. Gu ordea gauzak antolatzen gabiltza beti, edo ikasleak kanpora eramaten...

Soinurbil Musika Astea, esate baterako, 20. urteurrenean sortu zen eta datoren urtean seigarren edizioa beteko du. Udalarekin batera antolatzen dugu, herriari horrelako ekarpena eginez.

Zumarteko eraikina, egoera kaxkarrean

N. Sutegi hor dago gainera, ekitaldiak egiteko toki aproposa.

I. A. Gure arazoa da askotan Sutegi txiki geratzen zaigula! Ikasleak ere kanpora ateratzen dira jotzera edo kantatzera. Lehiaketak direla, trukeak... Horretaz aparte, bi urtez behin Euskal Herriko Musika Eskolen jaialdian ere parte hartzen dugu. Ikusten duzunez, mila gauzetan gabiltza. Hilero badago zerbait. Askotan, bat baino gehiago.

SEGURTASUN ARAZOAK

“Hau serioa da. Oraindik ez da ezer gertatu. Baina zerbait gertatzen bada...”

N. Erronkei begira, eraikinarena izango da aldarrikapen nagusia, ezta?

I. A. Eskaera aspalditik egin dago. Aurreko legealdiko udal gobernuarekin bazegoen proiektu bat adostuta. Legealdi berri bat hasi zen gero, eta horrelakoetan, bakoitzak bere lehentasunak zehazten ditu. Guk beharra ikusten dugu lehenik ere, eta bereziki segurtasun arazoengatik. Esate baterako, gainontzekoei bezala, guri ere Osalan eta Eusko Jaurlaritzatik eskatu digute eraikinaren segurtasun azterketa eta lan arriskuen prebentzio plana egitea, eta azterketa egitera etorri zen teknikaria izututa joan zen hemendik.

N. Paretetan dauden zirrikituengatik.

I. A. Eta ganbarak leihoak ditu, baina leihoak burniekin itxita daude. Hau dena egurrezkoa da, eta sute bat pizten bada, hau poxpolo kaxa bat da. Eta leihoak ezin badira erabili... Goian harrapatzen bazaitu, han geratuko zara..., euria egiten duen bakoitzean ere ituteak ditugu. Bestalde, elbarri bat etortzen bazaigu ea zer egiten dugun berarekin.

N. Igogailurik ez da hemen.

I. A. Eta ez dago egokituta elbarrientzat. Ez komunik, ez dago ezer. Eta akustika aldetik ere, gabezia handiak ditugu.

Pareta hauek egurrezko panelez eginak daude. Ordutegiak jartzera, kalkulatzen ibili behar izaten dugu tronpeta gela horretan badago, gela honetan ezin duela biolina egon. Eta alboka badago, aldamenean ezin dugu besterik eman. Eta sotoan bateria badago, ezin duzu aldamenean flauta irakatsi ordu horretan...

Ikasleak ere kanpoan uzten hasi gara. Ezin ditugulako guztiak hartu. Eraikina ez dagoelako egokituta, eta espazio falta dugulako. Ordutegiek eta espazioak ez digute gehiagorako ematen.

N. Dagoena moldatu ala berri bat egin. Zein litzateke egoera idealena?

I. A. Eraikin berri bat egitea. Edo hau bota eta atzeko belazea aprobetxatuz, hauxe bera handituz berri bat egin. Baina baldintza horiek guztiak kontuan hartuz (seguritatea, espazioa, emergentziazko irteerak, akustika).

Bestetik, eta legeri erreparatuz, eraikin berri batera joan beharko bagenu, baldintza batzuk bete beharko lirakeke, dekretu bidez araututa dago. Baina gai honekin aspaldi gabiltza. Segurtasun kontuengatik bereziki.

N. Ikasleen gurasoek zer diote?

I. A. Guraso batzuk harriduta geratzen dira, “Monsters-en etxea dirudi honek” esan izan digute. Orain herri askotan ari dira egiten Musika Eskola berriak. Gorantz doan mugimendu bat den seinale. Guk ere urtero gorantz egin dugu, beraz...

N. Urteurrenaren harira, datorren urtea ere berezia izango da, ezta?

I. A. Azaroan ekarri genuen Donato Goyeneche hirukotea. Informatika musikari buruzko ikastaroa antolatu dugu orain. Eta datorren urtean ere ekitaldi asko egingo dira. Ekitaldi nagusia, dena den, 2010eko ekainaren 12an egingo da. Gauean kontzertu erraldoi bat egingo da kiroldegian. Hor bildu nahi ditugu ikasleak, ikasle ohiak, irakasleak eta irakasle ohiak. Ospakizun egun handi bat izango da.



VILLA PILAR ERAIKINEAN DAGO MUSIKA ESKOLA.

Espazio faltan

N. Udalarekin harremanetan zaudete. Nola daude gauzak, eperik bai?

I. A. Ikastolak ere arazo bera du, espazio falta du. Azterketa bat egiten ari dira bi arazoei konponbidea eman ahal izateko. Eraikin bateratu bat aztertzen ari dira. Kultur Aholku Batzorde batean aipatu nuen gaia eta alkateak erantzun zuen aztertzen ari direla arazoa eta epe laburrean zer edozer esatea espero dutela. Ea egia den.

(...)

I. A. Hau serioa da. Oraindik ez da ezer gertatu. Baina zerbait gertatzen bada... Guk paper guztiak egin ditugu, inspektzio guztiak... guk gure lanak egin ditugu. Baina eraikina Udalarena da. Ez da gurea. Ikasleak usurbildarrak dira eta herriari ematen zaion zerbitzu bat da hau.



ZIRRIKITUAK, ITUTEAK, HEZETASUNA... ERAIKINA EZ DAGO BERE ONENEAN.

Txikitan bezala, Errenteriako Gabon Abesti Sariketan

Lehen aldiz aurkeztu zirenean, 8 eta 12 urteko gaztetxoak ziren. Orain ere hala dira, baina numero gehiagorekin. Errenteriako Gabon Abesti Sariketan parte hartu zuten eta lehen irteera hura gogoan, aurten helduen mailan lehiatzea erabaki dute. Idoia Arruabarrena pozik dago, ikasle oihak elkartzeko aitzakia izan baita. "Ez zaie oroitzapen txarrik geratu!", adierazi digu. 25 urteurrenaren harira, Errenterian kantatzeko elkartuko dira irudian direnak. Abenduaren 26an, arratsaldeko 18:30ean hasita, Errenterian arituko dira kantuan. Entseatzen jartzen ari diren ilusioarekin aritzen badira hilaren 26an, ondo ibiliko dira...



PASA DEN OSTEGUNEAN, ENTSEATZEN ARI ZIRELA ERRETRATATU GENITUEN.



Odolaren Mintzoak lehen maketa kalean du

Musikarekiko zaletasuna estreinako eta jada eskura litekeen lan berrian agerian utzi du, Odolaren Mintzoa taldea osatzen duen laukote gazteak; Luken Arkarazok (ahotsa eta gitarra), Joanes Txuekak (baxua), Beñat Txuekak (gitarra) eta Jokin Irastorzak (bateria). Gustura gelditu dira euren lehen grabazio lanarekin, esperientzia batez ere ikasteko eta euren burua entzuteko baliagarri suertatu zaiela diote.

NOAUA! Odolaren Mintzoaren lan berrian zer entzun dezakegu?

Luken Arkarazo. Rock-a.

Jokin Irastorza. Estilo desberdinen nahasketa bat litzateke.

N. Zuen musika erreferentziak zeintzuk dira?

Joanes Txueka. Batek estilo bat gustukoagoa du, ondokoak beste bat. Bakoitzak bere influentzien estiloei ekarpena egiten dio taldeari.

L.A. Euskal Herriko musika taldeen artean, Berri Txarrak. Eta gero, The Police, U2...

ODOLAREN MINTZOA

“16-17 urte ditugu, oraindik gida-baimenik ez, eta ez da erraza kontzertuak lotzea. Lasai hartu nahi dugu”

N. Kaleratu berri duzue maketa. Zer aldaketa suposatu du taldearentzat?

L.A. Egia esan, duela urtebete grabatu genuen disko hau. Aldaketa hori aspaldi eman genuen. Orain hobeto jotzen dugu, seguruago. Oso desberdina da kantak jotzea edota grabatu ostean, entzun eta orduan jotzea. Grabatutakoan, badakizu abesti bakoitzari nondik nora heldu behar diozun.

J.I. Orain abestiak desberdin entzuten dira. Grabaketak asko lagundu digu.

J.T. Gure burua entzuteko, ikasteko aukera izan dugu.

N. Sei abestiz osatu duzue zuen lehen lana. Zer da bertan adierazten duzuen?

L.A. Betiko gaiak dira; maitasuna, kri-



ODOLAREN MINTZOA TALDEKO KIDEAK, ENTSEGU-LOKALEAN.

tika soziala, gazteak, kutsaduraren gaia... Duela bi urte galdu genuen lagun bati eskainitako abesti bat ere sartu dugu lan berrian.

N. Hurrengo pausoa zein izango da?

L.A. Hurrengo lana prestatzea. Beste hamar kanta berri baino gehiago ditugu.

N. Grabazioarena zuentzat esperientzia berria izan da. Zer moduz moldatu zarete?

L.A. Galduta ibili gara, oso handi geratzen zitzaigun. Baina berriro gustura grabatuko genuke.

N. Zer aukera duzue zuen lana kalean ezagutzeko?

L.A. Zorte handia izan dugu, grabatzeko aukera edukitzeagatik. Beste kontu bat da, kanta hauek jendeak gustukoak izatea eta jendartearen zabaltzea.

J.T. Zabaltzen joan nahi genuke. Lehenbiziko maketa bati eman, hark beste bati...

N. Kontzertuen gaia nola planteatzen duzue?

L.A. 16-17 urte ditugu, oraindik gida-baimenik ez, eta ez da erraza kontzertuak lotzea. Lasai hartu nahi dugu.

N. Halere, inguruan eskaini dituzue zenbait emanaldi?

J.T. Orion jo dugu, Lasarte-Orian ere bai eta herrian. Gustura.

N. Inguruan edo herrian jotzean, alderik bai?

Beñat Txueka. Kanpora ere herriko

jendea joan zaigu gu ikustera, etxean bezala beraz.

N. Odolaren Mintzoa noiz eta nola sortzen da?

J.T. Parranda batean izan zen, herriko festatan.

L.A. Duela bi urte. Hasiara batean, Jokin bateri jolea, gitarra jolea zen. Biok klasekoak izanik, gitarra jotzeko geratzen ginen. Gero Joanes etorri zen, eta ondoren bere anaia. Hiru gitarra genituen, zaila.

J.I. Bateria gustukoa nuela eta gustura ikasiko nuela erabaki, eta orain arte.

Maketa eskuragarri herriko tabernetan

ODOLAREN
MINTZOA

Odolaren Mintzoaren maketa 5 Euroren truke eskura liteke Irrati, Txirristra edota Zendoia tabernetan. Ehun aleko lehen tirada agortu dute bi asteetan, baina laster gehiago eskuratu ahal izango dira. Taldeari buruzko informazio gehiago: myspace.com/odolarenmintzoa

Mendeku ItXua, Bilbao Hirian hirugarren

Hiru abesti bidali eta ezustean, Bilbao Hiria 21. Pop Rock Lehiaketan parte hartzeko aukera eskaini zieten. Asko itxarondako finalerdia ailegatu zen lehenik eta pasa den abenduaren 16ko finalerako txartela eskuratu zuten gero. Aurreko asteazkenean, guztia eman ostean, hirugarren postuan sailkatu ziren maila handia nagusitu zen kontzertu gauan. Orain, txapelketa amaitu berri den arren, indarrak ez dituzte ahitu, euren hirugarren lana izango dena prestatzen dabilta eta. Urte bukaera borobila Mendeku ItXua herriko taldearentzat.

“Dena eman genuen, barrua hustuta eta gustura amaitu genuen, oso pozik egindakoarekin”. Hitz horiekin laburbiltzen dute Mendeku ItXua musika taldekoek, Bilbao Hiria 21. Pop Rock Lehiaketako finalean bizi izan zutena. Pasa den abenduaren 16an, Bilborock aretoan eskaini zuen zuzeneko emanaldiaren ostean, metal arloko txapelketako hirugarren postuan sailkatu ziren euren lehiakide ziren Rise To Fall eta Akatu taldeen atzetik. 2.000 euroko saria irabazi dute.

MENDEKU ITXUA

“Urtarrilaren 16an
Antiguako frontoian
joko dute,
22:00etik aurrera”

Finalean taldeek erakutsi zuten maila handia zen. Rise To Fall, Bilboko talde irabazlearekin alderatuta, musika joera desberdina lantzen dutela adierazi dute Mendeku ItXua taldekoek: “guk egindako estiloa, euskal metala da, hogeitertetik hona datorrena”. Rise To Fallena aldiz,



MENDEKU ITXUAKOEK LEHIAKETA TXUKUNA OSATU DUTE.

euren esanetan, gure artean baino Europa mailan ezagunagoa den joera lantzen dute, eta hortik zehar, asko mugitu dira. Nabari zen bestalde, bertaratu ziren ikusentzuleen dagokienean, irabazleek etxean jotzen zutela. Baina beste behin, bilbotarren pare Usurbilgo musika taldearen zaletuak ere ez ziren atzean geratu. Berotasun handia jaso zuten publikoaren aldetik Ander Aizpuruak, Martin Larrañagak, Ixak Arrutik eta Inigo Rotetak osatutako taldeak ere. Finalisten artean zegoen giro ona ere azpimarratzen dute Mendeku ItXua taldekoek.

Ustekabeko bidea

Bilboko lehiaketan parte hartzeko abentura duela urtebete abiatu zen, egitasmoaren berri izan zutenean. Hiru abestiz osatutako bilduma bidali zuten txapelketara, proba moduan. Espero ez zuten erantzuna bi hilabete geroago ailegatu zen. “Otsailean jaso genuen e-maila, aukeratuak izan ginela zorionduz”, oirizten dute. Finalerdiko saioak ekainean behar zuen, baina obra batzuk tarteko, azarora arte atzeratu zuten. Hilabeteko tartean, finaleraino ailegatu dira usurbildarrak.

Martin Larrañaga, lehiaketako bateria jole onena

Martin Larrañaga lehiaketako bateria jole onena aukeratu dute. Bateria kaxa batekin saritu dute.

Bilboko Aste Nagusian edota Azkena Rock Festivalen kontzertua eskaintzeko aukera izango dute lehiaketako sarituek.

Lan berrian murgilduta

Bilboko lehiaketa atzean utzi ostean, Mendeku ItXuak taldeko kideek badute bestelako zereginik aurrerantzean; euren hirugarren diskoa izango dena lantzen hasiak dira.

Ideiak jaso eta abestiak sortzeari ekin diote jada. Lan hobeago bat plazaratzea da euren helburua. Bestalde, laster Mendeku ItXuaren kamisetak salgai jarriko dira.

Aldaketarik ez bada gainera, 2010eko lehen kontzertua Antiguako jaietan eskainiko dute. Urtarrilaren 16an, larunbata, Antiguako frontoian, gaueko 22:00etik aurrera. Martxoan aldera bestalde, Larratxon ospatu ohi den metal jaialdian ere parte hartzeko asmoa dute. Urte berrian ere beraz, eskubete lan herriko musika taldearentzat.

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

BENTA TABERNA
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K/ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Kafe nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okiandegia - Gazteingia
LABE-GOXO

“Kirolhaerria” jaialdiarekin bat

Euskal herritar gisara kirola egiteko aukera, eta nazioarte mailan ofizialtasuna izatea, aldarrikatu berri dute lurralde honetako ia bi mila kirolarik. Bilgune edo egitura bat izatea falta dute ordea. Bide horretan lehen harria igande honetan, abenduaren 27an jarriko dute, 18:00etik aurrera Anoetako Belodromoan antolatu duten “Kirolhaerria” jaialdian hain zuzen ere. Aldarrikapenak, arteak, kulturak eta noski, kirolak bat egingo dute ikuski-zun izaera izango duen ekimenean.

“Bide berri bat hasi nahi dugu. Kirola egiteaz gain, Euskal Herriarekiko sentimenduak batzen gaitu. Indarrak metatu eta geure muga eta geure balibideekin, Euskal Herriko kirolariok barne bilduko gaituen etxea eraikitzen gaurdanik hasi nahi dugu. Guk geuk, Euskal Herriko kirolariok. Gure kabuz, gure erriemora eta guztiok batuta”.

Mezu horrekin aurkeztu dute euren burua, “Kirolhaerria” ekimenarekin bat egin duten Euskal Herriko 1.700 kirolarik baino gehiagok. Helburua, euskal zazpi lurraldeak bilduko dituen kirolaren alorreko egitura eratzea izango da. Egituratze horren abiapuntu izan nahi du igande honetan, abenduak 27, Donostiako Anoeta belodromoan burutuko den ekitaldi erraldoi eta irekiak; “Kirolhaerria” izenekoak.

Ikuskizun itxura hartuko duen Belodromoko saioa, Eneko Olasagastik zuzenduko du. Sarrera doakoa izango da. Ekitaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

Egituratzea eta ofizialtasuna, oinarri

Ekimen honekin bat egin duten kirolariok Euskal Herriari nazio izaera aitortzea eskatzen dute, Euskal Herria aintzat hartzeari uko egin gabe kirola egin ahal izatea. Honenbestez, Euskal Herria ordezkatzuz nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen dute. Testu berean, ofizialtasunaren bidean aurrera egiteko, Euskal



USURBILGO KIROL TALDE EZBERDINETAKO KIROLARIAK BATU DIRA EKIMEN HONETAN.

Herriko kirolari guztiak bilduko dituen “tresna” baten beharra dagoela azpimarratzen dute.

Ideioekin bat egiten duten kirolariak bildu eta indarrak metatzeko asmoa dute; guztiak, amateur eta profesionalak, neska-mutilak, helduak eta gazteak... “Elkarrekin bide berri bat hastera goaz”, dio kirolariok kaleratu duten aldarrian. Aipatu moduan, bide horren abiapuntua igande honetako jaialdia izango da. Antolatzaileek, Belodromora joateko gonbita luzatzen diete herritarrei.

Usurbildar kirolariok, ekimenarekin bat

Ekimenarekin bat egiten duten kirolarien artean herritarrak ere badira; Usurbil Kirol Elkarteko eskubaloio jokalarik, futbolari, piraguista, igerilari, pilotari, arraunlari edota txirrindulariak. Aurpegi ezagunak tartean; Haimar Zubeldia txirrindularia, Imanol Agirretxe futbolaria edota Iñaki Errasti arraunlaria. Haietako asko Oiardo Kiroldegian bildu ziren hilabete hasieran, taldeko argazkia ateratzeko. Eseki zuten pankartak argi zioen; “abenduaren 27an, denok belodromora!”.

Oiana Blanco, saritua

Oiana Blanco judokari Gipuzkoa saria eman zioten aurreko astean. Bestetik, 2009ko kirolari onenaren hautagaien artean dago. Bozka emateko aukera dago helbide honetan

<http://www.elcorreodigital.com/>

Abenduak 26, pilota finalak

Usurbilgo pilotalekuan, goizeko 11:30ean Gipuzkoako Txapelketako bi final jokatu dira: **Kadete 3.maila:** Hernani- Oiarpe **Nagusiak 3.maila:** Hernani-Usurbil U. Ezeiza – E.Esnaola) (E. Huizi – J. Olaizola)

Villabona garaile

Alex Udabek final laurdeneko Adenbora paretsuan amaitu zuen, Iñaki Añorgak eta Mikel Otaegik korrika eta bizikleta gainean aurretik zuten denbora marka hobetu zuten, baina halere Villabonakoak nagusitu ziren Trindoor txapelketan.

Patrin birentzat afaria eskuratu du



Enrike Ulik irabazi du eskubaloio taldeak egin duen azken zozketa. Honakoan, Patrin birentzat afaria tokatu zaio.

Agenda !!

Abenduak 26 larunbata
- San Esteban Txiki Eguna, 11:00etan
Urdaiaga auzoan.

Abenduak 27 igandea
- Txotxongiloak Sutegin, 17:00etan.
Sarrerak kiroldegian alde aurretik salgai.

Abenduak 29 asteartea
- Hipo eta Tomax, Sutegin 17:00etan.
Sarrerak kiroldegian alde aurretik salgai.
- Infantil mailako eskubaloï txapelketa, goizetik aurrera kiroldegian.

Eguneko goardiako farmaziak

Abenduak 22, asteartea
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 23, asteazkena
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Abenduak 24, osteguna
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Abenduak 25, ostirala
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Abenduak 26, larunbata
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Abenduak 27, igandea
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Abenduak 28, astelehena
Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Abenduak 29, asteartea
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Abenduak 30, asteazkena
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 31, osteguna
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
*Castilla Farmazia (22:00-09:00),
Urbietza kalea, 7 Hernani (943 552 941)
Usurbilen, soilik eguerdira arte

Erregeentzako gutunak

Urtarrilaren 5ean, goiz partean, erregeentzako gutunak bilduko dituzte frontoian. Erregeen kabalgata, ordea, arratsalde partean hasiko da.

Urdaiaiatik jaitsiko dira. Kaxko inguruko kaleak zeharkatu eta gozoki poltsak bidean hustu ondoren, harrera egingo zaie iluntzean pilotalekuan.

Urtero bezala, kabalgatarako laguntzileak behar dituzte, antortxeroak, besteak beste. Ekitaldian parte hartzera deitzen dute.



ANTOLAKETA LANETARAKO LAGUNTZA
BEHAR DUTE ZIORTZAKOEK.

Lagundu nahi duenak honako posta helbidera ziortzage@gmail.com idatz dezake, edo Parrokiara agertu dadila.

Gabonak kantuan

Abenduak 24, osteguna
09:00 Aginagako apaiz etxetik (Antolatzailea: Katekesis taldea).
15:30 Ameritik (Antolatzailea: Zubieta Lantzen).

17:00 Aitzaga aurretik (Antolatzailea: Usurbilen nahi ditugu elkartea).

17:00 Parroki aurretik, Kale Nagusia (Antolatzailea: Parrokia).

Jolas Parkea

Urtarrilak 2, 3, 4 kiroldegian
11:30-13:30 / 16:30-19:30

Txikitxoentzako ekintzak:
2 eta 6 urte bitarteko umeei zuzenduta. Haur Ludoteka: etxolak, txirristak, balantzinak, tunelak...
Makillajea: begirale baten laguntzarekin. Puzgarria: salto eta dibertitzeko aproposa. Pintura txokoa.

Umeentzako ekintzak:
7 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta. Betiko jolasak, eskulanak, txapak, multijolasak, puzgarriak...

NOAUA!ko xextuak

NOAUA!ko bazkideen artean bi xextu zozketatu ohi ditugu eguberrietan. Eta publikitatea jartzen dutenen artean, beste bat. Aurtengo irabazleak hauek izan dira, zorionak!



Kintin Segurola



Pello Zubeldia (irudian, semea)



Bordatxo taberna
(irudian, semea)

URDAINTZI S.L.
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@gmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@gmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Solariuma L'ORÉAL
Izoli Lizarralde
• Izaipardegia • Estetika Zentrua
Zubiaurrenea, 5-B 943 361 971

ETXEBIZITZA

- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 Kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gautan).
- Atxegaldeko Erdiko Kalean 81 metro karratuko etxea salgai. Erreformatua, prezioa 47 milloi pezeta. Interesatuak deitu 600369013 telefonora.
- Logela bat alokatzen da etxe konpartitu batean. Pisu berria da eta Usurbilgo kaxkoan kokatuta dago. 610 319 405.
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berriua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berriua. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- "Gas Gas" 321txt trialeko moto bat salgai. Oso egoera onean. 1000 euro. 607233255.
- Behoko Kale Atxegalden lokal bat daukagu salgai. Interesatuak deitu 645736726 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494

- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotrako altuera. 943361265.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Esperientzia duen neska bat behar da goizez etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 687055166.
- Emakume bat (paperak ditu) eskaintzen da pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. 618128461 / 943575788.
- Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntza lanak, garbiketarak eta baserri lanetan aritzeko. 677593772
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egiteko nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.

- Mendingi edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan. 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aukiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). E-posta: istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatu bazeude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberrieekin eta urtebeteko behorra. 626 220925

Zorionak Aner

Matxain!

Abenduaren 5eko partez, zorionak aita eta amaren partez eta urte askotarako!! Muxu handi bat!



Zorionak Mari!

Ondo pasa zure urtebetetzeguneari! Afariaren zain egongo gera. Muxu bat etxekoen partez!



HILDAKOAK

Joxepa Maiz Illaramendi
91 urterekin hil zen,
abenduaren 21ean



HILDAKOAK

Josefa Garcia Fernandez
80 urterekin hil zen,
abenduaren 15an



www.noaua.com

USURBILGO ATARIA





ARTZABAL BASERRRIA

Artzabal

Eguneraka menua 9€

Ostegunetik Igandera menu bereziak

Pintxoak: hotzak eta beroak

Kaxuelitak...



-%20

**Zorionak eta
Urte berri on!**

mahuka

943 36 11 06 Etxebeste 3, Usurbil